

NERABEEN UDA AISIALDIA

Kaixo familia!

Irurako nerabeei eskaintza iraunkorra eskainiaz, haien gaztaroaz gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea bermatzea dugu haur, nerabe eta gazte zerbitzuko helburu. Horregatik, 2020-2021 ikasturteari amaiera emateko, 2005-2009 urte bitartean jaiotakoei eskaini nahi diegun **Uda Aisialdia udaleku irekiak** aurkeztera gatoz.

Jakinarazi nahi dizuegu udalak udaleku irekiak antolatzen jarraituko duela, baina une honetako aisialdi zerbitzuetako neurriek ezinezko egiten dutela Uda Aisialdia zerbitzua martxan jartzea. Beraz, **ezin dugu ziurtatu uztailean zerbitzu hau aurrera eramaterik izango dugun.**

2020ko udaleku irekiak gauzatu zirenetik ia urtebete igaro da, baina une honetako egoera epidemiologikoa ez da hobetu. Hala ere ahalegina egingo dugu Uda Aisialdia zerbitzua ahalik eta kalitatezkoena izateko.

Zerbitzua ekainaren 28tik uztailaren 23ra izango da, astean hiru egunez, horietako batean irteera egiten ahaleginduko garelarik. Aurtan, **Uda Aisialdian bi txanda egongo dira**. Txanda bakoitzaren iraupena bi astekoa izango da eta, nahi izanez gero, bi txandetako aurrematrikula egin daiteke. Behin aurrematrikula eginda, zerbitzuaz gozatu duten haurren kopurua jakingo da.

Espazio itxiekin ditugun mugen ondorioz, **gerta liteke zerbitzua astean hiru egunez jaso beharrean, egun zehatz batzuetan soilik jasotzea**. Hau jakitean, behin betiko zerbitzua zein izango den jakinaraziko zaie aurrematrikula egin dutenei, eta zerbitzuan baja emateko aukera izango dute.

Txandak: bakoitzak komeni zaion txandan eman dezake izena:	<ol style="list-style-type: none">1. txanda: EKAINAREN 28TIK UZTAILAREN 9RA (astean 3 egun).2. txanda: UZTAILAREN 12TIK 23RA (astean 3 egun).
Ordutegia:	Goizeko 10:00etatik 13:00etara (irteerak egonez gero 10:00etatik 17:00etara).
Parte-hartzaileak:	2005-2009 urteen artean jaiotakoak (biak barne).
Prezioak:	Txanda bakarra: Iruran erroldatuta daudenek 32,92 €, besteek 70,4 € Bi txandak: Iruran erroldatuta daudenek 57,20 €, besteek 140,8 €
Aurrematrikula:	Apirilaren 23tik 30era (biak barne), www.irura.eus webgunetik Online, sinadura elektronikoko bidez, edo matrikulazio orria deskargatu eta kultura bulegoan entregatuz.
Behin-behineko taldekatzea:	Maiatzaren 3tik 11ra bitartean, taldekatzeak egin eta zerbitzuaren behin-behineko eskaintza jakinaraziko da.
Baja emateko epea:	Maiatzaren 12tik 18ra, zerbitzurako aurrematrikula egin dutenek baja emateko

	aukera izango dute www.irura.eus webgunetik Online, sinadura elektronikoko bidez, edo baja eskaera orria deskargatu eta kultura bulegoan entregatuz
Behin betiko taldekatzea:	Maiatzaren 19tik 21era, behin betiko taldekatzeak egingo dira.
Lekua dagoen taldeetan matrikulazioa egiteko aukera:	Behin betiko taldeak egin ondoren, Irurako webgune eta App bidez jakinaraziko da zein taldeetan dagoen lekua, eta maiatzaren 24tik 28ra zabalduko da talde horietan matrikulazioa egiteko aukera (matrikulatzeko sistema aurrematrikulatzeko sistema bera izango da).

Familia ugariaren agiria aurkezten dutenei %10eko deskontua aplikatuko zaie. Deskontu honi, bigarren seme alabaren izen-emateagatik, beste %10eko deskontua aplikatuko zaio, eta hiru seme-alabek izena emango balute, %15koa.

Familia ugaria ez izan arren, seme-alaba bat baino gehiagok izena eman badute, deskontu bera aplikatuko da (bigarrenarengatik %10). **BETI ERE GAZTELEKUKOEN UDA AISIALDIAN IZENA EMATEN BADUTE ETA EZ HAURREN UDA AISIALDIAN.** Deskontuak Iruran erroldatuta daudenek soilik izango dituzte.

KOBRAKETA UDALAK EGINGO DU ZUEK BAIMENDUTAKO KONTU KORRONTETIK.

Bestalde, **inork ordaintzeko arazoak balitu**, gizarte zerbitzuetako hobari-soziala eskuratzeko aukera izango luke matrikulazio orrian eskaera eginez. Eskaera onartua izanez gero, kuotaren %10 ordainduko luke.

Aurten ere, aurrematrikula www.irura.eus webgunearen bidez egitea gomendatzen dizuegu. Horretarako sinadura elektronikoa beharko duzue, eta ez duzuenok BakQ-a eska dezakezue udaletxeko harreran (herritarrentzako identifikazio elektronikoa). Horrela egin nahi ez baduzue, www.irura.eus webgunean aurkituko duzuen aurrematrikularako orria bete eta kultura bulegoan entregatu behar duzue. Kontuan izan aurrematrikularako epea errespetatzea ezinbestekoa dela kalitatezko zerbitzua mantentzeko.

Kontziente gara zerbitzu honek herriko haur eta nerabeentzat duen balioaz. Horregatik, udalak ahal dituen baliabide ekonomiko eta pertsonal guztiak jartzen ditu beraien eskura. Hemen dituzue 2020ko *Uda Aisialdia* udaleku irekietako datu batzuk:

Parte-hartzaile kopurua:	HAURRAK: 99	NERABEAK: 40
Udalak, goiza pasarako kontratatutako begirale kopurua:	BEGIRALEAK: 18	
Diru-sarrerak eta gastuak:	SARRERAK: 6259.65€	GASTUAK: 26583.88€

OHARRA: Matrikulazioaren inguruko berriak jaso nahi badituzue Irurako Udaleko APP-a deskargatzera gonbidatzen zaituztegu.